

Hitzordu

«Lau liburu helburu» kanpaina

Horixe da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ikasturte honetarako prestatu duen irakurketa kanpainaren izena. Aipatzen diren lau liburu horiek Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan banatu dira (8 urtetik 11ra bitarteko umeei, beraz), eta ume horiek zenbait ekintza egin ahal izango dituzte liburuak irakurri baino lehen, bitartean eta ondoren.

Zeregin horietatik lehena, liburuari liburu itxura ematea da; izan ere, tolestatu gabeko plegua emango zaie, eta behar bezala tolestatuz gero 24 orrialdeko liburuska lortuko dute. Ondoren, irakurtzearen plazerra etorriko zaie eta, azkenik, umeen sormena lantzeko zenbait ekintza ere egi-tea proposatzen da.

Liburuen tituluak, egileak eta ilustratzaileak honako hauek dira:

Amona, zure Iholdi

Mariasun Landa eta Elena Odriozola.

Titanick

Patxi Zubizarreta eta Iñaki Martiarena, *Mattin*.

Aitonaren loroa

Jesus Mari Olaizola, *Txiliku* eta Jokin Mitxelena.

Ttolo maitea

Juan Kruz Igerabide eta Belen Lucas.

Ekimen txalogarri honek jarraipena izango ahal du!



Lau

liburu



helburu



Irakurzaletasuna eta zortea

Orain dela hilabete inguru, gabon otzara batarako txartelak salduz, bi mutil etorri ziren etxera. Oso loteriazalea ez izan arren, irabaziak auzuneko futbol taldearentzat zirela jakin eta zenbaki bat hartzea erabaki nuen. Zenbat zen galdegitean, mutilek hirurehun pezeta zirela erantzun zidaten, eta baita nik zintzo asko ordaindu ere. Baina txartela hartu eta aurrena zenbakiari begiratu nion: 0586, eta hurrena prezioari: 100 pta! Listua irentsi eta, «Aizue, okertu zarete...!!!», esan nien ordu-rako eskaileretan behera zihoazen mutil bihurriei. Orduan nitaz trufatu zirela pentsatu nuen, eta orain, Haur eta Gazte Literaturari buruz (HGL) halako gogoeta egin nahi dudan honetan, pasadizo hartaz oroitu eta zera pentsatzen dut: gizarteak ere trufa egiten diela haur eta gazteei, eta etengabe aipatzen eta goraiatzen dizkiela irakurtzearen onurak, baina inork gutxik irakurtzen duela, eta ezin diegula dastarazi guri kontrako eztairitik joaten zaizkigun letrezko jakiak. Irakasleek, gurasoek, liburuzainek... irakurtzen ez badute –batzuetan idazleek ere gehiegi ez–, nola kutsaraziko diegu sukar plazerezkoa den irakurzaletasuna?

Irakurzaletasuna kutsatuko badugu, argi dago ezinbestekoa dela estrategia egoki bat tajutzea: aurrena liburu onak idatzi edota marraztu behar dira (idazleak eta ilustratzaileak), hurrena argitalpen erakar-garri eta ausartak burutu behar dira (editoreak, erakundeak...), hurrenago behar bezala banatu behar dira (banatzaileak, bibliotekariak, liburu saltzaileak, irakasleak...), eta azkena publizitate egokia eta kritika zuzena eginez (hedabideak, kritika-

riak), irakurlearen eskuetara helarazi behar dira. Estrategia hori, gurean eta gaur egun, oraindik ere zehazteko bidean dago eta, tamalez, liburuaren prozesu-kate horretako partaideen arteko harremanak ez dira beharko luketen bezain arin eta eraginkorrak.

Alabaina, irakurzaletasuna bultzatzeko estrategia horretan, badira oso onuragarriak diren datu eta gertakariak: *Galtzagorri* erakundearen indartzea, bai *Gazteak eta liburuak* bai *Haur Literatura eta Eskola* bezalako biltzar gero eta ugariak, *Behinola* HGL-ko aldizkariaren bigarren ale hau da goeneko kalean da, Durangora begira argitaratu ziren azken liburuak irakurtzea eta Arrate Egaña, Lutxo Egia, Karlos Gorrindo bezalako izen gutxi-asko berriekin topatzea, *Lau Liburu Helburu* bezalako kanpaina sortzea... aski da gure maila duinaz ohartzeko. Baina ahalegin horretan sakondu beharra daukagu, nahiz eta azkenean jakin irakurzaletasunarena loteria moduko bat ere badela, eta haur eta gazte guztiak nekez izango direla irakurzale amorratuak.

Orain dela hilabete inguru, Gasteizko liburu saltzaile fin batek kontatu zidan amona bati egokitu zaiola irakurzaletasunaren loteria. Antza, oraintsu irakurtzen ikasi du eta atsegin handiz irensten ditu haurrentzako liburuak, beren letra handiarengatik, beren marrazki liluragarriengatik, beren istorio erakar-garriengatik... Adinean hainbeste aurreratu gabe, asmatuko ahal dugu haur eta gazteentzat –eta baita helduentzat ere– loteriako zenbaki egokia erosten...!



Elena Odriozola

Patxi Zubizarreta